

# ...eta Kitto!

2017-III-10

1.007 zkia.

# Eskolatik *enskeraren bidetik* etxeraino

2 mō betaurreko  
graduatu  
erreflexuen aurkako leiarrekin

97€

Gure betaurreko  
guztiak **bilduma**  
berrietakoak dira

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRENERIA  
IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabilti.

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

# + osasun gida

## Dentistak



**Arat**  
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hartz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Tfn: 943 20 18 51



**bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Asko dira**  
gure hartz-klinetara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE  
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



**EIBAR** HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfn: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplantak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



**hartz-klínika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Iribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfn: 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGO**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplantak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896**

9 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
*Konpromisoa*

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa



**NATUR HOUSE**

Ainara Iriando Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa



**CRF AMOSTEGI**  
**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfn: 943 20 34 46 Tfn: 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA**  
ESTETIKOIA

**KIRURGIA**  
ESTETIKOIA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20  
Tfn: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

**M<sup>a</sup> Jose Ruiz de Porres**  
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

**T. Etxebarria, 4 - 1. esk. 943 20 28 57**

## Logopedak



**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk.  
943 202691  
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluzio atipikoa  
Disfonia  
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak  
Berba arazoak  
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**

elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**

Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA**

**MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.

**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LEUNTZAILLE.**- Piezak leuntzen dituen bihargina. Armagintzan akabatzaile eta dultzizaille esaten zaio. "Beti leuntzaille fiña izan da, baiña jokuak zihero alperrik galdu dau".

Mekanismuak koipeztatzeke zeregina daukan bihrgina. "Honek poleiak leuntzaille on baten premiña daka".

Leunkerietan ibiltzen denari ere esaten zaio. "Uezabaren leuntzaille ebillen, ipurdi-garbitzaille ez esatiarren".

## astean esanak

"Estatubatuarrak lainoetan bizi dira, gero eta gehiago: ez galdetu geografiaz, ezta euren Historiaz ere, okurridu ere ez euren Konstituzioan zer dioen inguruan, ezetz jakin Gorte Gorena dutenik... Ez dakite gerra egiten dihardutela toki guztietan, ez dakite ezer. Ezjakinak izateaz gain, guztiz sinestuta daude egia aurkitu dutelakoan; hori bai arriskutsua! Ekologia esparruan ere... Itsasoa goraka datorrela-eta, hondartzetan harea botatzen dute desagertzen doazela jendea konturatu ez dadin"

(DONNA LEON, IDAZLEA)

"Zure katua lorategian txoritxo batekin jolasean ikusten duzunean praktikoki lehoi batek ñu bat oihanean zelan harrapatzen duen drama beraren aurrean zaude. Etxeko katuaren eta felino handien arteko alde bakarra tamainan dago: zure katuak lehoiaren tamaina balu, jan egingo zintuzke. Katuek Zumosoleko lehengusu felinoen antzera jokatzen dute ia egoera guztietan; hori bai, ez dira hain sozialak, horretan gertuen leopardoak dituzte. Aldi berean, katuak dira bakarrak urrumaka benetan egiten, zertarako ez dakigun arren. Katuak bere burua felino handizat jotzen duen? Txakurra atzetik duenean, ez!"

(BEVERLY JOUBERT, NATIONAL GEOGRAPHIC)

"Etxeko enpleguak, egun dagoen bezala, desagertu egin beharko luke. Etxeko lanak emakume pobreen kontua dira, eta gero eta gehiago etorkinena. Besteak beste, egoiliar lana, zaintzen duten pertsonaren etxean bizi direnena; ia guztiak dira atzeritarrak. Gainera, oso orokortuta dago gutxiespena, baita beste zapalkuntzen inguruko kontzientzia dutenengan ere. Batzuk pentsatzen dute zaintzen dutenarekin paseatzea, edo mezara joatea, hori atsedena dela, hor ez dagoela lanik. Bestalde, administrazioei oso ondo datorkie sistema horrela antolatuta egotea: erantzukizuna kentzen die"

(LIZ QUINTANA, ABOKATUA)



ENRIKE ZUAZUA

## Matematikarien esanetan

Gizakiak gizaki denetik Matematikaren ibilbidea jorratu du ingurunea ulertu nahian. Eginkizun horrek neurketak egitea eskatzen zuen eta tresna berriak behar ziren. Asmo horrekin sortu zen Matematika. Zenbakiak lehenik, gero Geometria, Abstrakzioa, Logika... Informatika eta ordenagailuen indar gehigarriari esker, Matematika mundua ulertzeko eta gizartea kudeatzeko izugarriko oholtza bihurtu da. Ez da izan egun bateko lana, zibilizazio guztien ekarpenak bilduz sortu den eraikuntza intelektual erraldoia baino. Arlo horretan diharduten zientzialariak eta jakitunak aspaldi oharitu ziren Matematikak mundua azaltzeko eta eraldatzeko zuen gaitasun miresgarri bereziz, eta horren inguruko hausnarketa aberatsak laga dizkigute.


Galilei ospetsuak (1564-1642) honela esan zuen: *Unibertsoa Matematikaren hizkuntzan idatzita dago*. Baliteke Unibertsoa hizkuntza askotan idatzita egotea. Baina gizakiok asmatu eta ulertzen duguna Matematikarena izan da (eta da). Berandu dirudi orain eredu aldatzeko: Matematika gero eta beharrezkoagoa izango da Naturak, gizakiak eta gizarteak sortzen duten triangulua garatzeko orduan. Datuen garaian bizi gara!

Isaac Newton zientzialari erraldoia (1643-1727) fededuna zen. Berak eginiko aurkikuntzen garrantziaz jabetuta, Jainkoarenganako bere menderakuntza aitortu nahian zera asmatu zuen: *Besterik ez balego, nire eskuko behatz lodia Jaungoikoaren existentziaren froga nahikotzat joko nuke*. Gaur egun ere horrela da: gizakia txiki, nanoa geratzen da beti, eta derrigorrez apala izan behar Naturak berez garatu dituen mirarien ondoan. Newton-ek honakoa ere esan zuen: *Urrunago ikusi badut, erraldioen sorbalden gainean ibili naizelako izan da*. Esaldi hori oso famatua bihurtu da azken aldiari "Google Scholar" web atariak berori hartu baitu bere lelo gisa: *Erraldioen sorbaldetan*.

Matematika etengabeko katea da eta matematikariok, kasurik onenean, begikate txikitxo bat sortu eta gehitzeko gai izaten gara. Belaunaldi batetik bestera transferitzen dena, "jausitakoa lepoan hartuz", euskal abestiak dioten bezala. Aurrekoek eginikoa erabiliz, hurrengoek osotu eta hobetu dezaten, bakoitzak bere ekarpen apala egin.

## Adostu dabe maiatzaren 7rako galderia

Aurreko zapatuan Eibarko Gure Esku Dagok deitutako billeran parte hartu ebe-**nen artian**, maiatzaren 7xan eibartarrak bozkatuko dogun galderia adostu ebe-**nen**: *"Euskal errepublika bateko herritarra izan nahi dozu?"*. Beste herri batzuetan eginda-kuaren bidetik, galdeketa egunian zer galdetu pentsatzeko saiuan, Zelai Nikolasek eta Iñigo Urrutiak la-**gunduta**, billerara agertu ziran herritar-**rrak** goiz osua emon ebe-**nen** gaixaren ingu-**ruan** hausnarketia egitten, galderia as-**matu** eta adostu arte.



asteko  
3.343  
datua

*lagun eguazen Lanbiden izena emonda otsailla amaieran, aurreko hillian baiño 43 gitxiago; horretatik 1.907 andrak ziran eta 1.436 gizonak. Azken 5 urtietako kopururik txikiena da.*

## Datorren asteko zapatuan Lore, Landare eta Zuhaitz Azokia egingo da Urkizun

Azken urtietakuari jarraituta, hamen do-**gu ate joka udaberrixaren etorreria ira-**gartz****en Lore, Landare eta Zuhaitz Azokia. Betiko moduan, Urkizuko parkian egingo da zazpigarren ediziño hau be, goizeko 09:00etatik 14:00xak arte; eta tartian, 11:30xetan hasitta, lore-landaketa taillerra izango da. Debemen Debabarreneko Landa Garapenerako Alkartariak, Eibarko Udalaren laguntzarekin, antolatutako azoka horretan honakuak hartuko dabe parte: lurretako Or-**tuberri**, Oñatiko Antonena, Oiartzungo Zu-**noyar**, Usurbilgo Urtinea eta Aranburu min-**tegixa**, Lasarteko Semillas Ecológicas, Gas-**teizeko** Gure Lurrak, Aritzakurengo Tiendu-**ka**, Tafallako Viveros El Montañes, Huesca-**ko** Alquimia de Aineto eta Bidezko Merka-

taritza. Sasoiko lore eta landariekin batera, ortuko eta barrurako landariak, landare usaintsu eta apaingarriak, sendabelarrak eta hazixak, loriek ingindako bitxixak eta kosmetika-produktuak eta medikuntza natu-**ruralekuak** ikusi eta erosi ahal izango dira.



## Saratxagak pertsonen garrantzixa azpimarratu zeban Armerixako hitzaldixan

Haudalan lan billa diharduen profesionalen osatutako kolektibuen antolatuta, aurreko asteko egunian Armerixa Eskolan K2K taldeko Koldo Saratxagak emondako hitzaldixan, bere betiko martxan, "pertsonen balioa" azpimarratu zeban eta horrek "enpresa baten billakaeria" dakan garrantzixa adierazi zeban. Horrez gain, bere ustetan "hezkuntza sisteman egin biharreko aldakuntzaz" jardun zeban eta jendiaren jarreraren alde egin eban, "euren ahalmeri bakarrik begiratu biharrian". Berarekin parte hartu zeben hitzaldixan Joana bere alabak eta Pablo Aretxabala K2K-kuak.



## Gaixorik daguazen umieri laguntzeko tatuajiak

Martxuaren 25erako jardunaldi berezixa antolatu dabe hainbat tatuadore, gaixotasun arraruak eta diagnostikatu barikuak dittuen umieri laguntzeko dirua batzeko asmuarekin: goizeko 10:00etatik 21:00etara Untzagako jubilauek etxian zortzi tatuadore profesional egongo dira, 50 euroren truke nahi dabenari tatuajia egitteko prest (100 diseinuko baino gehiago egongo dira aukeran). Egunian zihar lortzen daben diru guztia AFESD eta Berri txuak alkartieri emongo detse. Bestalde, egunian zihar umiendako hainbat jarduera eskinduko dittue (aurpegixak margotzeko taillarrak, ekitaldixaren logotipurekin kamisetia egittia, txosna ipiñiko dabe, azoka solidarixua...).



## autuan

### AQUANANDA IKASTARUA

AFESD alkartiak antolatuta, Eibarren egindakuen bidetik Ermuan be fisio-hidroterapia "Aquananda" ikastarua emongo dau Boris Guinzbourg sendagilliak. Metodua 12 urtera arteko umiendako egokixa da eta bereziki interesantia mugitzeko zein burmuñeko arazuak dittuenendako. Klasiak Ermuko kiroldegixan izango dira, martxuaren 20tik 24ra bittartian, eta bi talde osatuko dittue (17:45etik 19:15era eta 19:15etik 20:45era). Ikastarua 100 euro balixo dau eta izena emoteko zuzenian Ermuko kiroldegira jo biharko dabe interesa dakenak.

### GOI-ARGIREN BATZARRA

Martxuaren 19xan (domeka) egingo dabe urteko batzarra Goi-Arri alkarteko bazkidiak, 18:30xan hasitta. Iazko kontuak aurkeztu eta 2017rako aurreikuspena azaldu eta gero, juandakuen artian oparixen zozketia egingo dabe eta, amaitzeko, Goruntz abesbatzak kantau egingo dau. Bestalde, hildako bazkidiaren aldeko mezia egun horretan ospatuko dabe Estaziño kaleko San Agustin elizan, 13:00ian.

**Funeraria-Ehortsetze Mugica**

**EIBAR**

**Beilatokia:**  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**

**Beilatokia:**  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko erdialdean**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

**943 20 19 51** [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortsze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

## VII. Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka

09:00etatik 14:00etara  
**11:30ean LORA LANDAKETA TAILERRA**

**Martxoaren 18an Urkizun**

## Udala, Herritarren Partaidetzarako Erakundien arteko Guneko kide

Eibarko Udalak Euskadin eta estatu mailan berritzaillia eta aitzindarixa dan proiektuarekin egin eban bat jua dan astian: Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Gunea Gipuzkoan. Osoko bilkurak aho batez onartu eban aipatutako gunera atxikitzia, eta Ana Telleria (PSE-EE) eta Leire Abanzabalegi (EH-Bildu) izendatu zittuan ordezkari moduan. Eibarrek, gaiñera, 10.000 biz-

taletik gora daken udalerririk ordezkatu dittu Espazio Exekutibuan.

Herritarren partaidetzarako politikak herri mailan alkarlanian sendotzia da gune berrixaren helburua. Guniak 100.000 euroko aurrekontua eukiko dau aurten eta Aldundixa egingo da bere kargu.

Guneak modu autonomo eta independentian ibilliko da eta eskumen garrantzitsuak eukiko dittu. Tokiko erakun-

dietarako diru laguntzak ziheztuko dittu, herritarren partaidetzarako programa zihetzak bultzatuko dittu, hainbat programa diseña-tu eta sustatuko dittu, eta gida metodologikak ipiñiko dittu praktikan. Bere bihar nagusixetako bat baliabide gitxieneko udaleri danetariko laguntza, aholkularitza eta baliabidiak eskintzia da.



## Saltzaille moduan trebatzeko ikastarua langabetuentzat

Salmenta prozesuak kudeatzen ikasi eta lana topatzeko gaittasuna gartzeko ikastarua antolatu dabe Udalak eta Debegesak langabetuentzat. Tokixen %60xa emakumientzako izango da eta enpresen administraziñua eta humanidadiak ikasittakuak izan biharko dira hartzailliak. Izan be, herrixan 215 bat emakume langabetu dagoz aittatutako profilarekin. Ikastarua martxoaren 15-etik 19era egingo da eta izen-emotia zabalik dago.

## Hazilan programarako adin tartia zabaldu dau Debegesak

Hazilan laneratze-programaren hirugarren deialdixa zabaldu dau Debegesak Debararrenian. Aurten, nobedade moduan, adin tartia zabaldu da eta 25-44 urte artekuak eukiko dabe ekimenian izena emoteko aukeria (orain arte 35 urteraiñokua zan). Hirugarren ediziño hau apirillian ipiñiko da martxan eta hillebete bi iraungo dittu. Interesa dakenak martxuaren 31era arte eukiko dabe izena emoteko denporia, [www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus) webguniaren bittartez, eta plaza kopurua mugatua da. Bete biharreko baldintzak betetzen dittuen hautagaien artian aukeraketa prozesua egingo dau Debegesak. Hautatuak prestakuntza pertsonalizatua jasoko dabe. Lehen fasian (Aktibatu), euren gaittasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko trebakuntza jasoko dabe, eta proiektuen kudeaketa arloko ezagutza eta trebezia landuko dabe, metodologia berritzaillien bittartez. Bigarren fasian (Kokatu), enpresetan praktikak egitteko aukeria eukiko dabe. Unibersidade titulua edo goi-maillako prestakuntza ziklua euki eta lana topatzen ez dabenendako programia da Hazilan, eta bere helburua pertsona horrek laneratzia da.



*Epaimahaikuak ez dabe erraza izango irabazlia aukeratzia.*

## Gaur amaittuko da Gilda Lehiaketia

Aurreko urtiotan bezala, aurten be tabernarixen arteko gilda lehiaketia egingo da, ...eta kitto! Euskara Elkarreak "Ostalariak Berbetan" egitasmuaren harira antolatuta. Hirugarrenez egingo dan lehiaketarako 25 tabernarik emon dabe izena eta danen eskintza, baktxaren gildaren argazki eta guzti, tabernetan banatu ditten diptikuetan dago jasota. Horrekin batera, jendiak bozkatzeko papelak eta botua emoteko kutxak be laga dittue. Eguaztenian hasi ziran gildak probatzen eta baktxari puntuak emoten epaimahaixa osatzen daben Mireia Alonso, Ruben Etxaniz eta Josu Mugerzak eta gaur amaittuko dabe ibilbidia. Antolatzailliak sari bi banatuko dittue: bat epaimahaikidiak hartzen daben erabagixaren araberakua izango da eta bestia, barriz, bezeruak emondako bozkak erabagiko dabe. Kasu bixetan, sarixa 150 eurokua izango da. Gaiñera, bozketan parte hartzen daben guztien artian Kantabria jatetxian bi lagunendako menu berezixa zozketatuko dabe.

## Martxuak 8xak asteburuan jarraituko dau, domekako bardintasunaren martxarekin

Eguaztenian Emakumien Nazioarteko Eguna gogoratu zala eta, martxuaren 8xan ezeze, hillebete osua beteko dabe horren harira antolatu daben programiako jarduerak. Aurreko barixakuan "Hotzikarak" helduendako ipuin musikatua eskindu eben Ines Bengoak eta losu Lizarragak Topalekuan. Eguaztenian, barriz, eguardixan karte- lehiaketako irabazliari sarixa banatu zetsen eta erakusketia zabaldu eben Portalean, eta arratsaldian, barriz, flash-moba dantzatu eta alkarrataratzia egin zan Untzagan. Domekara-



"Hotzikarak" ipuin musikatua izan zan Topalekuan.



Haraiñegun Untzagan dantzatu zeben flash-moba.



## Txistorraren Eguneko sarixa jasotzen

Aurreko astian jaso zeban Mertxe Astigarragak trukian Oberena harategiko produktuetan gastatu leikezen 300 euroko balia. Sarixa Eibar-ko Txirrindularitza Elkartia antolatutako azken Txistorraren Eguneko zozketakua da. Argazkian, irabazliarekin batera, Jose Mari Jimenez harategikua eta Angel Lopez txirrindulari alkarteko presidentia.

## Emakumien biharrari eskindutako taillarra emongo dabe bixar Museuan

Emakumien Nazioarteko Egunaren harira ekitaldi berezixa antolatu dabe Armagintzaren Museuan bixarko: "Zer nolako biharrari emakumiena!" izeneko taillarra 17:00etan hasiko da eta antolatzailiak belaunaldi ezberdiñen arteko topaketia izatia billatzen dabe. Saiua elebiduna izango da eta 25 bat lagunendako tokixa egongo dala aurrerratu dabe. Interesa dakanak bixar bertan eukiko dau izena emoteko aukeria, Museuan, 16:00etatik 16:30xetara bittartian.

Bestalde, martxuaren 18xan, Museoko erakusketa iraunkorra ezagutu nahi dabenendako doako bisita gidatua eskinduko dabe, 17:00etan euskeraz eta 18:30xetan gazteleraz. Talde bako-



txian 20 lagun onartuko dittue eta izena emoteko aurretik 943708446 telefono zenbakira deittu edo museoa@eibar.eus helbidera idatzi biharko da.



## M<sup>a</sup> LUISA RUIZ DE EGUINO "Marialui" (2017-III-6)

**ZURE alaitasuna eta bestetikiko zenuen begikotasuna gurekin geratuko dira BETIRAKO.** — ZURE ALABIA —

**Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak**



## Minbiziaren Aurkako Elkartea

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Minbiziaren Aurkako Elkartea, 1953.urtean sortu zen. Elkartea honen helburu nagusiak, gaixo onkologiko eta senideen bizi kalitatea hobetzea, prebentzioen arloan lan egitea, eta ikerketa sustatzea dira. Eskaintzen diren zerbitzu guztiak doakoak dira.

### Ekintza nagusiak

#### Gizarte Arloa:

- Gaixo onkologiko eta familiakoei zuzenduriko informazioa/orientazioa.
- Laguntza teknikoa: material tekniko ortopedikoaren mailegua.
- Giza baliabideen kudeaketa.
- Harrera-pisua minbizia duten gaixo eta senideentzat.

#### Arlo Psikologikoa:

- Banakako/taldeko harrera psikologikoa:
  - Gaixo onkologikoak, senideak eta zaintzaileak.
  - Dolu-prozesuak.
- Prebentziorako psikologia saila: erretzeari uzteko bakarkako eta taldeko terapiak, prebentzio-kanpainak urte osoan zehar, osasun-hezkuntzarako programak, paziente onkologiko eta familien bizi-kalitatea hobetzeko tailerrak eta profesionalen formakuntza.

#### Boluntariora:

Gaixo eta familiekin: zainketa paliatiboetan, ospitalean eta etxean; Administrazioa; Baliabideen lortpena; Prebentzioa: kanpaina dibulgatiboak

**helbidea:** Ardantza kalea 11  
**telefonoa:** 943 20 24 94  
**e-maila:** bajodeba@aecc.es  
**ordutegia:** Astelehenetik ostiralera 9:30etik 13:30era  
**langileak:** Gizarte Langilea (Ainhua Oregi) eta Psikologoa (Miriam Márquez)



Ardantza kalean dago Minbiziaren Aurkako Elkartearen egoitza. Argazkian Miriam Marquez eta Ainhua Oregi.

## Proyde-Proega

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Proyde - Proega (Promozioa eta Garapena) 2001. urtean lehenatasuneko helburu sozial batekin sortutako Fundazioa da: Garapenerako lankidetzak.

Fundazioaren Estatutuek dioten bezala, hau da bere

#### **fundazio-helburua:**

- Justizian eta solidaritatean, lan boluntarioan, eta garapenean hezteak.
- Herrialde behartsuenen promozioa eta garapena;
- Garapen-proiektuetan oinarritutako lankidetzak, mota ezberdinetako jardueren bitartez:
  - 1) Garapen sozio-ekonomikoa, begiraleen formazioa, gazte eta helduen alfabetatzea, langile prestatuak bidaltzea.
  - 2) Helburu horiek lortzeko egiturak ezartzea.
  - 3) Justizian eta garapenean hezteak, Euskal Autonomia Erkidegoan.

### Ekintza nagusiak

- **Garapenerako eta solidaritaterako hezteak:** Geure gizarteak sentsibilizatzea, solidaritatean eta justizian heziz, eta zenbait kultur baloreen aldatzea bultzatuz.
- **Garapen Proiektu eta Programak sustatzea lurralde pobretuetan,** heziketaren alorrean batik bat.

**helbidea:** La Salle Azitain Gorosta bailara, 34  
**telefonoa:** 943 12 16 98  
**e-maila:** Joseba Agirrezabalaga proega@lasalle.es  
**webgunea:** www.proyde-proega.org



Proyde-Proega gobernuz kanpoko erakundeak garapenerako hezkuntzan eta garapen-proiektuak aurrera ateratzeko egiten du lan.



Greziako Lesbos irlaren hegoaldean dago Kios, Egeo itsasoan. Parean du Turkia, "Kontxatik Santa Klara uhartea ikusten den bezala, ia-ia". Hiru astetan egon zen bertan Arrate Berasaluze, ekainean, Zaporeak proiektuarekin eta Greziako beste hainbat GKE-ekin errefuxiatuei laguntza eskaintzeko asmoz. Bueltatuko da. "Kiosera ziur, baina Atenasera ere bai, mugimendu handia dagoelako han".



## ARRATE BERASALUZE (boluntarioa Kios uhartean):

# "Boluntarioak berebizikoak dira, baina gobernuek dute konponbidea"

– *Zergatik erabaki zenuen Kiosera joatea?*

Ermuko lagun bat, Julio, eta ni beti genbiltzan joan behar genuela esaten. "Orain edo inoiz ez", esan genuen azkenean, eta horrela egin genuen, han gertatzen zena ikustera joan ginen. Gure asmoa Lesbosera joatea zen, baina joan baino egun batzuk lehenago Zaporeak ekimenak jendea behar zuela irakurri genuen egunkarian, beraz, deitu egin nien. Euren proposatzen zutena zen Zaporeakek dituen sukaldeetan janaria prestatzen lan egitea eta gero errefuxiatu-zelaietan janaria banatzea. Hasiera batean gustatu zitzaigun, baina guk ez genuen Zaporeaken boluntario bezala bakarrik joan nahi.

– *Eta orduan, nola egin zenuen?*

Gure kabuz hotela hartu eta Kiosera joan ginen. Heldu eta berehala Zaporeaken sukaldeetara joan eta 1.700 pertsonari jaten emateko lanean hasi ginen. Gustatu zitzaigun, baina

Julio eta ni ipurterreak gara. Gure hotelean Toula izeneko emakumea zegoen, guretzat erreferentia dena. Teresa Kalkutakoa bezala ikusten dut! Gobernu Kanpoko Erakundea (GKE) dauka berak han, CESRT izeneko. Goizero bilerak egiten zituztela ikusi genuen eta "zer gertatzen da hemen?", galdetu nion. Boluntario asko heltzen ziren, herrialde askotarikoak, eta, berak esan zigunez, egunero goizeko 9etan bilera egiten zuten eta taula batean eguneko lanak ezartzen zituzten. Orduan, Zaporeakekoei esan nien Toularen taldera batuko nintzela, guzti hori ezagutu nahi nuelako. Hori gehiago gustatzen zitzaidan, errealitatea gehiago ezagutzeko aukera ematen zidalako.

– *Zertan aritu zinen CESRT erakundekoekin?*

Bazegoen proiektu bat asko gustatzen zitzaidana, Umezurztegia deitzen ziotena. Bakarrik zeuden haur eta nerabe-

ak jasotzen zituzten, eta han lagundu nuen batez ere. Kiosko hiru kanpamenduetara ere joaten ginen, gazteekin hainbat ekintza egitera. Egunean zehar aske dabilta eta eskolan inoiz egon ez diren umeak daude euren artean. Ez dakite disziplina zer den, hau da, egunero 8etan esnatzea, gosaltzea, haginak garbitzea... Beste batzuk umezurtegiara joaten ziren gazteekin kirola egitera. Kanpamenduak izugarriak dira, oso txarrak, eta umezurtegia izar askoko hotela da horien aurrean. Hala ere, kolore arrosako kartzela da eurentzat, ezin dirrelako handik irten.

– *Eta, horretaz gain,...*

Norvegiako GKE bat ere ezagutu genuen. Errefuxiatuen zentso antzekoa egiten ari ziren. Etxetik batera irten ziren familiak daude, orain sakanatuta daudenak, beste familiartekoak non dauden jakin gabe. Askok eta asko itsasoan hil dira. Identifikatu gabeko milaka gorpu daude uretan.

– *Hori bai, lanean etengabe ibili zinen.*

Boluntarioak beharrezkoak dira han, berebizikoak, jende horren bizi-kalitatean ahal den moduan laguntzen dutelako. Baina boluntarioek ez dute arazo honen konponbidea, Europako Gobernuak baizik.

– *Kiosetik nora doaz errefuxiatuak?*

Pixkanaka-pixkanaka bideratzen dituzte Europako herrialdeetara, baina oso gutxi. Mugak behar den bezala ireki behar dituzte. Bestetik, mafien arazoarekin amaitu behar da. Askok irabazten dute guzti honenkin.

– *Greziarrek nola bizi dute egoera hau?*

Greziarren portaera azpimarragarria da. Eskuin muturra dago, baina baita jende esku-zabala ere. Kiosko ekonomia ondoratu egin da, oso turistiko izanik, turistek orain ez dutelako bertara joan nahi. Ulertu egin behar da greziarrek egiten ari diren esfortzua.

# Liburuak



eva alberdi  
—UDAL LIBURUTEGIA—

## Ixo! Liburutegian gaude eta

Agian ezagutuko duzue El Mundo Today\* webgunea, @el-mundotoday Twitterren. Gaur egungo albisteei buelta eman eta modu barregarrian euren ikuspuntua botatzen dute sare sozialetan.

Lehenago egunean grazia egin zidan albiste bat ikusi nuen Twitterren: "Liburutegira joaten diren hiru espainiarretatik bi bakarrik

joaten dira jendea isilarazteko" ... "irakurtzera, irakurtzera esaten dena, inor ez da etortzen dagoeneko". Eta aurrerago medikuntzako ikasle batek, esaterako, kexa hau adierazten zuen: "Ez du-te bat ere pasatzen, behin isiltzeko agindu zidaten parean neukan mutilari begiratzeagatik".

Asuntua da Eibarko liburutegiaren kasuan bai etortzen dela jendea bertan irakurtzera, eta baita ikastera ere. Eta horrek kexak sortzen ditu batzuetan, ikasleak eta bestelako erabiltzaileen arteko harreman hori dela eta.

Eibarko liburutegian irakurri eta ikasi baino gauza gehiago egin ahal direlako: adibidez, liburuei buruzko gomendioak eskatu sarreran egoten denari; liburuak edo beste edozein material etxera eramatera etorri; antolatzen diren jardueretan parte hartu; Internet erabiltzeko gure sisteman alta emateko eskatu; edo, orokorrean, edozein informazio eske etorri.

Gauza horiek guztiak burutzeko ia beti berba egin behar dugu bertako langileek. Horrela da, ez dugu besterik.

El Mundo Today-n aipatzen den medikuntzako ikasleari pasatu zitzaiona hemen gerta ez dadin, har dezagun pazientzia pixka bat eta elkarbitzen ikas dezagun.

\* <http://www.elmundotoday.com>



## Musika

### Angela eta Iman



iñaki  
zubillaga

lanean. Sasoi horretan industria berria hasi zen agertzen musika inguruan: diskoak, kontzertuak, erropak,... Mary Angela "Angiek" Mercury disketxean lan egiten zuen, merkadoteknia sailean.

**David Robert Jonesek**, bestalde, disco bat zeukan DAVID BOWIE izenarekin eta beste bi disko rock talde batzuekin. 1969ko uztailean "Space oddity" diskoa plazaratu zuen, ikaragarriko arrakastarekin; eta hortik aurrera, bere talentuarekin eta Angelaren aholkuekin, hasi zen David Bowieren mitoa. Ile koloretsuak, arropa lotsagabea, kontzertu-antzerkiak, alkohola, drogak,...

Angela eta David handik gutxira ezkondu ziren eta Duncan Zowie jaio zen. "Golden years" abestian kontatzen du Bowiek zelakoa zen sasoi hartan zuten bizimodua. Hamar urtetan musika-lan biribilak irten ziren: psikodelia, hard, ambient,...


Somalian jaiotako **Iman Mohamed Abdulmajid** ere hortik zehar ibili zen bere aitaren lanpostuaren arabera. Unibertsitate-



ko ikaslea, modeloa, enpresa-sortzaile,... Bowiek Tin Machine proiektuan zegoenean ezagutu zuen: rock indartsua eta hitz sakonekin ziharduen orduan. 90. hamarkadan ezkondu ziren, eta geroago jaio zen Alexandria Zahra. Etapa horretan David Bowiek ez zituen atera disko berezirik, eta bizitza lasaiagoari heldu zion. Familia, zinema,... eta sariak jaso. Urtebete pasa da hil zenetik. Bi emakume berezi artista aparta batentzako.



**Mary Angela Barnett** Zipren jaio zen. Bere aitaren bizibidea zela-eta, leku askotan bizi izan zen. 60. hamarkadako amaieran Londresen zebilen disketxeko munduan



Hamaika arrazoi tartean, jende askok ez du ganorazko otordurik egiten, batez ere adin batetik aurrera eta are gehiago bakarrik bizi denean. Askori sukaldatzeak lan larregi ematen diela eta, azkenean edozer gauza jaten amaitzen dute, benetan komeni zaien elikadura zaindu barik eta, epe luzera, osasunari eragiten dioten arazoak ager daitezke. Horrelako egoerak saihesteko asmoz ekimen berria abiatu dute gure herrian: janaria etxera eramateko zerbitzua eskaintzen hasi dira eta egunotan herriko jubilatuei etxeetan hitzaldiak ematen ibili dira, jendeak horren berri izateko.



## MENU orekatu eta OSASUNTSUAK ETXERAINO eramateko zerbitzua martxan

**A**urreko asteko aldizkarian aurreratu genuen bezala, Udaleko Gizartekin-tza sailak, herriko jubilatuei etxeekin elkarlanean, 65 urtetik gorakoentzat eta menpekotasunen bat dutenentzat zerbitzu berria ipini du martxan, nahi dutenei bazkaria eta afaria etxeraino eramateko.

Gureak Zerbitzuak enpresakoek ematen dute otorduen etxez-etxeke zerbitzua eta enpresa horretako nutrizionistak azaldu dizkie herriko jubilatuei gorabehera guztiak, horretarako propio antolatutako hitzaldietan. Azaldukoaren arabera, "orain dela lau urte hasi ginen zerbitzua ematen. Orain dela gutxira arte sukaldia Erreterian egon da eta orain, berriz, Hernanira aldatu dugu, zerbitzu hobea emateko aukera ematen dizkiguten instalazio berrietara. Gure sukaldariek egunero prestatzen dituzte otorduak, etxean moduan baina askoz ere kantitate handiagoan eta, janaria banakako formatuan ontziratuta eta gero, enpresetara, haurtzaindegietara, ikastetxeetara edo etxeetara eramaten dugu, pare bat minutuz mikrouhin-labean epeldu eta jateko prest. Janari guztia modu naturalean prestatzen da, aditibo eta kontserbante barik, eta ontzietan sartzeko orduan makina batek haizea atera eta usainik edo kolorerik ez duen gasa sartzen du, ho-



rela hozkailuan gordeta bi asterako iraupena izateko".

Esandakoaren arabera, Gureak Zerbitzuak enpresan elikadura osasuntsu eta orekatuaren aldeko apustua egiten dute, bertako produktu freskoak erabilia eta menu osasuntsuak eskainita: "Asteroko menuak nik begiratzen ditut eta ni neu arduratzen naiz horiek orekatuak izateaz. Janari garbia izaten da, krema eta zopa asko, lekaleak, barazkiak, eta bigarren plateretan saltsaren bat

duten gauzak prestatzen ahalegintzen gara, epeltzerakoan ez lehortzeko. Gainera, bakoitzaren premia bereziei erantzuteko moduko menuak ere prestatzen ditugu, bezeroak hala egiteko eskatuz gero".

Janaria astean behin banatzen dute eta Eibarren eguaztenetan egingo da etxez-etxeke banaketa: "Bazkariaren prezioa 4'65 eurokoa da, afariarena 4'20 eurokoa eta biak nahi dituenak, berriz, 8'25 euro ordaindu behar dituzte. Ideia bat egiteko, aste osorako menuak 58 euro balio du (asteko zazpi egunetan bazkari eta afaria, biak etxera eramanda). Otordu bakoitzak, bestalde, lehen platera, bigarrena eta postrea izaten ditu beti. Eskatzen dugun gauza bakarra astean gutxienez bost bazkari edo afari erostea da. Zerbitzua erabiltzen hasteko, berriz, nahikoa da 943 344 290 telefono zenbakira deitzea. Helbidea eta bestelako datuekin batera, ordainketarako kontu korrantea ere eskatuko zaio eta, eskatzen duenaren arabera, hurrengo hileko 10/15a bitartean kobratuko zaio. Bestalde, norbait kanpora joanez gero edo, edozein arrazoiengatik zerbitzuan baja eman nahi izanez gero, nahikoa da aipatutako telefono horretara deitzea hori azaltzen. Eta alta emateko gauza bera, interesatzen den momentuan berriz deitu eta listo".



Gogoan ditugu zurekin botatako barreak eta zure umorea. Mila esker. Maite zaitugu. Zure lagunak.

**LAURA  
MARTINENA  
URIBESALGO**

Gasteiz, 2015-III-6  
II. URTEURRENA

*Gaztetxef lehiaketako irabazleak:*

## «Guztira hiru plater egin behar izan genituen»

*Aurreko asteburuan amaitu zen aurtengo Gaztetxef lehiaketa Indianokua gaztelekuan. Hiru talde lehiatu ziren final handian eta postreak burutu zituzten: sagar-tarta, tortitak nata eta marrubiekin eta limoizko bizkotxoa. Epailerek lan zaila izan zuten, baina talde lana, zaporea, itxura eta hainbat gauza kontuan izan ondoren, "Laleguna" taldea eta bere sagar-tarta gailendu zen. 12-13 urte bitarteko neskak dira talde irabazlea osatzen dutenak: Leire de Leon, Laura Gonzalez, Guadalupe Caceres eta Naia Segovia.*



**Goian: Leire de Leon eta Naia Segovia**  
**Behean: Laura Gonzalez eta Guadalupe Caceres**

**– Non ikasten duzue? Aspaldiko lagunak zarete?**

Itzion egiten ditugu ikasketak, DBHko 1. mailan, baina aspaldiko lagunak gara, San Andres ikastetxean ere elkarrekin ibiltzen ginen.

**– Gaztelekura sarritan joaten zarete?**

Bai, sarritan etortzen gara, bari-xaku eta zapatuetan, arratsaldea pasatzera eta lagunartean ondo pasatzera. Giro polita egoten da, eta besteekin hitz egiteko eta jolasteko aukera daukagu hemen. Harremanak sakontzeko primeran dago.

**– Gaztetxef lehiaketa esperientzia berria izan da zuentzat?**

Bakailao-lehiaketan ere parte hartu izan dugu San Andres jailetan, baina Gaztelekuko Gaztetxef lehiaketa berria izan da guretzat. Inoiz egin ez ditugun gauzak egin behar izan ditugu.

**– Nolako izan zen finala?**

7 talde geunden hasieran, baina azken fasera 3 talde iritsi ginen. Finallean sagar-tarta egin genuen, internetetik ateratako errezeta bat oinarri moduan hartuta. Nahiko txikia atera zitzaigunez, masa gehiago egin behar izan genuen bestea-

rekin elkartzeko, eta azkenean oso ondo irten zitzaigun. Beste talde batekoek mermelada laga ziguten, gure errezetan ez zuen jartzen mermerlata beharrezkoa zenik!! Beraz, inprobisatzen ibili ginen, baina benetan gozoa zegoen. Epai-mahaian begiraleak zeuden.

**– Finalera heldu baino lehen beste 2 frogak egin behar izan zenituzten...**

Lehenengo faseko platera osasuntsua izan behar zen eta arraultza beteak egin genituen, entsalada apurtxo batekin. Denbora jakin bat genuen horretarako: ordu t'erdia izan genuen begiraleek emandako 10 euroekin supermerkatuara joateko, platera prestatzeko eta dena jasotzeko eta garbitzeko. Bigarren frogan berenjena beteak egin genituen. Hori ez genuen guk aukeratu: 3 karta eman zizkiguten eta guri berenjenak prestatzea egokitu zitzaigun. Finalerako sagar-tarta egitea gu geuk erabaki genuen. Osagaien zerrenda begiraleei pasatu genien eta eurek egin zituzten erosketak. Esperientzia zoragarria izan da, errepikatzeko modukoa!

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com)

667 54 89 16

**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L

**KOMERTZIAL  
TEKNIKARIA  
behar da**



/ Erakutsitako balioaren arabera **BALDINTZA EKONOMIKOAK.**  
Enpresako AUTOA.

/ EUSKERA ETA INGELESA ondo jakitea baloratuko da.

BIDALI CURRICULUM-a: [quintana@murrplastik.es](mailto:quintana@murrplastik.es)

## Kontzertu hirukoitza hartuko du bihar gaztetxeak

Eibarko gaztetxeak ska, pun-rock eta streetpunk musikaz girotutako jaialdia antolatu du biharko. Gaueko 22:00-etatik aurrera hiru taldek emango dute kontzertua, bata bestearen atzetik. Zartako-K

taldea Tafallatik (Nafarroa) dator eta osatzen duten gazteek ska estiloa jorratzen dute euren abestietan. JaleO taldea ere Tafallatik ailegatuko da bere punk rock musika zuzenean eskaintzeko prest. Hirukote



ZARTAKO-K

batek osatutako taldea da hau: Laplaza (gitarra), Dani de Pueyo (bateria) eta Lanás (bajua eta ahotsa), hiru horiek dira JaleO. Eta karteletako hirugarrenak, Oiartzundik datorren Yakovlev42 taldeak punk, rock, streetpunk, hardcore... estilo horretako musika egiten du eta bere kideak Odio, Sutura,

Txumatxos eta Artritis taldeetan jardundakoak dira: Enrike (ahotsa), Oihan (bajua), Endika (gitarra) eta Ion (bateria). Kontzertuak gauean hasiko badira ere, gaztetxea 18:00etatik aurrera egongo da zabalik, berotzen joan nahi dutenentzat "musika apartaz girotua". Sarrrerak 3 euro balio du.



## Robotikari buruzko udaleku teknologikoak

Aurrekoetan izandako arrakasta ikusita, udalak robotikaren inguruko udaleku teknologikoak antolatu ditu berriz ere, "zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko" irrikitan dauden gazteentzat.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei eta DBHko 1. eta 2. mailakoei zu-

zendutako tailerrean parte hartzen duten robotak erabiltzeko diseinatzeko, eraikitzen eta programatzeko ikasiko dute, horretarako **Legó Mindstorms EV3, MAKEblock eta bideojokoak** egiteko plataformak erabilita. Klaseak Portalean izango dira (martxoak 18, 25 eta apirilaren 1ean, 18:00etatik 20:00etara), euskaraz emango dituzte eta bi talde egongo dira. Ikastaroaren prezioa 24 eurokoa da Eibarren errolatuta dauden haurrentzat eta 40 eurokoa, berriz, Eibartik kanpokoentzat.

Eta "Robotika. Legó WeDo" izenekoa, berriz, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoei bereziki zuzenduta egongo da. Tailerra Portalean, Museoan eta Jazinto Olabeiko ludotekan burutuko da (martxoak 18, 25 eta apirilaren 1ean, 16:00etatik 18:00etara). Hau ere euskaraz emango dute eta hiru talde osatuko dituzte (talde bakoitzak to-



LHko 3., 4., 5. eta 6. eta DBHko 1. eta 2. mailakoentzat dira tailerrak.

ki batean emango ditu klaseak). Kasu honetan ikastaroaren prezioa 36 eurokoa da Eibarren errolatuta daudenentzat eta 61 eurokoa Eibartik kanpokoentzat. Batean zein bestean izena emateko epea astelehenera arte egongo da zabalik Pegoran, Herritarren zerbitzurako bulegoan.






**txotx!** sagardotegi  
DENBORALDIA

Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe

[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)



**50.**  
urteurrena

**DARIO**  
bus

Tel. 943 741 677

Joan den ikasturtean, 2015/16an, Arrateko Andra Mari eskolako guraso batzuk eskola eta etxearen artean euskarari jarraipena egiteko beharra ikusi zuten; seme-alabei (eta, kasu batzuetan, ilobei) etxeko lanekin euskaraz lagundu, euskaraz jolastu eta euskaraz elkar eragiteko beharra. Ikastetxera hurbildu ziren euskara klaseak eskatzeko eta taldea sortu zuten. Irakasle batek musutruk eman zien klaseak eta, behin amaituta, balorazio ezin hobea egin zuten. Aurten, Arrateko Andra Mariko esperientzia Eibarko beste eskoletara zabaldu da 'Gurasoak ere eskolan' ekimenarekin.



# Gurasoak eskolan, euskara etxean

**E**ibarko Udala urteetan saiatu da gurasoengana heltzen euskara ikasi edota praktikatzeko. "Euskara Planean jasotzen den zerbait da", dio Junkal Txurruka Euskara Teknikariak. "Kanpainak egin izan ditugu, hainbat pertsona animatzen ziren, baina ez genuen taldeak sortzea lortzen". Udalak ez zuen formularekin ematen. "Azkenean, euskaltegietara jotzen zuten gurasoek, baina han eurek nahi zutena baino ordu gehiago eskaintzen ziren eta, ondorioz, prezioa altuagoa zen eta baita intentsitatea ere".

Arrateko Andra Mariko esperientziak bidea erakutsi zion Udalari. "Horri buruz jakin genuenean mugitu egin ginen ekimena Udaletik bideratu eta hiri osora zabaltzeko", dio Txurrukak. Horrela sortu da 'Gurasoak ere eskolara' ekimena; herriko ikastetxe guztietako gurasoek, eskola orduetan eta ikastetxean bertan, euren seme-alabekin euskaraz aritu ahal izateko ikastaroa.

## Gurasoak euskarara hurbiltzea

Txurrukak adierazten duenez, "helburua gurasoak euskarara gerturatu daitezela da, euskaraz aritzeko orduan konfiantza izatea eta euskaraz egiteko ohitura sortzea, kon-

promisoa hartzea". Dena den, ikastaroa hasi aurretik, lortu nahi duten helburua zein den galdetzen zaie gurasoei, "baina ekimen hau ez dago euskara titulua lortzera bideratuta".

"Garrantzitsuena egin dute: euskara ikasteko nahia erakustea", azpimarratzen du Txurrukak. "Gainera, umeentzat eredu garriak dira, motibagarriak". Horrez gain, horrelako ekimenak integratiorako tresna ezin hobea direla ueste du teknikariak. "Euskara jasotzearekin batera, familiari materiala ematen zaie: liburuak, gidak, eskuliburuak... horren berri izaten dute eta gauza horiei arreta ipintzen dizkiete".

## Arrakasta lehen edizioan

'Gurasoak ere eskolara' ekimenaren lehen edizioan 150 gurasok eman zuten izena hasiera batean. "Arrakasta handia", Txurrukaren berbetan. Gero, zentroetan bilerak egin ziren eta taldeak antolatzen joan ziren. Azkenean, 90 bat gurasok hartu dute parte, "batzuk ezin zutelako, ordutegia ez zitzaielako ondo egokitzen edo dena delakoa".

Zortzi talde osatu dira: Arrateko Andra Marin bat, J. A. Mogelen bi, San Andre-sen bat, La Salle Isasin bi eta Amañan

beste bi. "Aldatzen hiru guraso apuntatu ziren eta beste eskola batzuetako taldeetan ari dira; Urkizun, bestetik, guraso bakarrak eman zuen izena", aipatzen du Txurrukak. Talde bakoitzean 10-15 guraso daude eta Haur Hezkuntza zein Lehen Hezkuntzako haurren gurasoak batzen dira. "Taldea errazago egiten dira horrelako gauzak bakarka baino", Txurrukaren iritziz.

AEK eta Udal Euskaltegiko lau irakasle ematen dituzte klaseak eta 60 ordu iraungo ditu ikastaroak. Astean bi egunean batzen dira gurasoak eta ikastaroaren prezioa 40 eurokoa da. Txurrukak dioenez hori da arrakastaren gako bat. "Euskaltegien tarifa ezartzen da, baina ordu gutxiago dira, gurasoak izateagatik erdia ordaintzen dute matrikulan eta diru-laguntza bereziak eskaintzen dira".

Martxoaren amaiera eta apirileko lehen astearen artean amaituko dira 'Gurasoak ere eskolara'-ren saioak, baina 2017/18 ikasturtean berri egiteko asmoa adierazi du Txurrukak. Kurtsoa amaitzean balorazioa egingo dute eta apirilean euskararen sentsibilizazio-kanpaina egiteko asmoa dago, "gurasoen jarrera berresteko asmoz".

**Astearte goizetan, umeak ikastetxean laga eta klaseko bidea hartzen dute** Cristina, Inma, Conchi, Cristina, Marta, Fafa, Jacqueline, Alberto eta Benignok. *"Umeengatik gaude hemen, etxeko lanak egiteko orduan lagundu ahal izateko"*. Cristinak dioenez, *"haurrak aitari itxaron behar dio etxeko lanak egiteko eta nik ere lagundu nahi diot"*.

Batzuk bazekiten euskarazko zenbait berba, baina beste batzuentzat hizkuntza guztiz berria da. Conchi, adibidez, euskaltegira joandakoa da, *"baina orain dela asko eta, orain, neskatoarengatik nago hemen"*. Jacqueline, bere aldetik, 'Gurasoak ere eskolan' antzeko ekimenean ibili zen La Sallen orain dela 12 bat urte.

Hiru hilabete hauetan asko ikasi dutela aitortzen dute. *"Klaseak oso ondo daude, lasaiak dira, desberdina, umeekin aritzeko bideratuak"*. Teoria ere ikasi behar izan dute, *"hasiera batean hitz egitea zen asmoa, baina euskaraz ez genekienez, nola egin ikasi behar dugu lehenik"*.

Cristinak azpimarratzen du garrantzitsua dela ikastaroa umeen klase-orduetan egitea, *"bestela ezin izango genuke etorri"*. Gogoarengatik, behintzat, ez da, eta hori da Idurre irakasleak azpimarratzen duena. *"Oso motibatuta daude"*. Fafak ere hori berresten du, *"ni Barrenatik oinez nator, gogo handiz!"*. Datorren ikasturtean berriz izena emateko gogoia, baina ikastaroaren iraupena luzatuko lukete. *"Oso laburra egin zaigu!"*.



Euskaraz ikastearekin batera, umore onik ez da falta klaseetan. **Ekhi**

**Paula, Diego, Masiel, Susana, Ivonne, Mari Mar eta Mertxeri ere oso motza egin zaie ikastaroa.** *"Datorren ikasturtean ere apuntatuko gara, ez dugu ikasitakoa galdu nahi"*. Maialen irakaslea ere oso pozik dago eurekin. *"Euskarara hurbiltzeko modu polita da"*, bere iritziz.



Umeek pozarren hartu dute gurasoen esfortzua. **Ekhi**

Haurrekin euskaraz jarduteko eman zuten izena ikastaroan guraso hauek. *"Nik lagun bati bidaltzen nizkion umearen etxeko lanak, berak gaztelerara itzultzeko"*, dio Paulak. Diegoren emazteak, adibidez, badaki euskaraz, *"baina nik lagundu nahi diot umeari, nirekin ere euskaraz aritzea nahi dut"*.

Gurasoek euskara ikasteko erakutsitako gogoia umeek oso begi onez hartu dutela aitortzen dute. *"Lehen nirekin ez zuten euskaraz egiten, nahiz eta ni saiatu, baina orain bai"*, dio Ivonnek. Masielen ere lehen ez zion bere alabari euskaraz ulertzen, *"baina orain Dominikar Errepublikan dago eta berarekin euskaraz elkar eragiten saiatu naiz, eta erantzun dit!"*. Mertxeren semeak, adibidez, *"lehen ia ez zuen euskaraz egiten eta gaur bertan euskaraz berbetan harrapatu dut"*.

*"Klaseak oso ondo daude"*, Masielen ustetan. *"Gauzak ondo azaltzen ditu irakasleak"*, dio Mari Marrek, *"kontu praktikoak ikasten ditugu eta gauzak zergatik esaten diren horrela"*. Susana ere pozik dago. Bera euskaltegian ibili zen aspaldian, *"eta orain gauzak gogoratzen nabil, pena litzateke euskara galtzea"*.

Irakasleak gurasoen meritua goraiatzeko du eta, eurek diotenez, *"euskaratik haratago lotzen gaituen zerbaitek batzen gaitu orain"*.

## JOSE LUIS DIAZ GARCIA

(2017ko martxoaren 1ean hil zen)

**ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.**

**ETXEKOAK**

**SENDIAK BIHOTZEZ ESKERTZEN DITU JASOTAKO DOLUMINAK**



## 87 eibartar izan ziren 28. Lilatoian

Inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan zituen aurreko domekan Donostian jokatu-tako Lilatoia 28. edizioak, ia 5.000 emakume izan baitzi-ren irteera-puntuan. Euren artean Izaro Rubio ordiziarra izan zen lehenengoa helmugaraz-tzen ibilbideko 5 kilometroak osatu ondoren. Atletico San Sebastianek antolatzen duen

proba gure artean antolatzen direnen garrantzitsuenen artean egonkoritu da eta, lau urte-tan bakarrik, %46 hazi da parte-hartzaileen kopurua. Gure herriko 87 atleta helmugaratu ziren goiz horretan eta Olga Herrero izan zen lehen ordezkaria, 70. postuan. Jarraian dituzue eibartarrek lortutako postuak eta denborak:

70	Olga Herrero	00:22:57	1425	Ane Azkue	00:32:22	3392	Idoia Arriola	00:37:03	4355	Irati Arriola	00:39:46
100	Marina Kruzelaegi	00:23:43	1553	Maitane Ruiz	00:32:48	3394	Helena Sarasketa	00:37:03	4361	Miren Baranguan	00:39:47
169	Maialen Zubizarreta	00:25:11	1585	Helena Garcia	00:32:55	3398	Olatz Ibaibarriaga	00:37:04	4409	Onintza Irigoien	00:39:55
283	Daiana Rico	00:26:33	1624	Iraide Paredes	00:32:59	3401	Beatriz Arrizabalaga	00:37:04	4415	Ainhoa Oregi	00:39:56
562	Virginia Areta	00:28:35	1629	Lore Azpiri	00:32:59	3406	Joana Antxustegi	00:37:05	4422	Nerea Lopez	00:39:57
563	Izaskun Elkorobarrutia	00:28:35	1635	Leire Sarasua	00:33:00	3460	Oihane Sarasketa	00:37:10	4461	Itsaso De Diego	00:40:03
648	Maddi Alberdi	00:29:01	1719	Itziar Rodriguez	00:33:14	3501	Teresa Herrero	00:37:14	4467	Ainhoa San Martin	00:40:03
653	Naroa Arrizabalaga	00:29:02	2210	Estherxu Kareaga	00:34:24	3552	Garazi Estenaga	00:37:20	4525	Tamara Amador	00:40:15
660	Alicia Martinez	00:29:04	2272	Maribel Feliz	00:34:31	3555	Genesis Rocio Albizu	00:37:20	4526	Laura Fernandez	00:40:15
661	Ane Sarasketa	00:29:04	2373	Cristina Fernandez	00:34:48	3563	Myriam Zubiaurre	00:37:22	4528	Nerea Olano	00:40:15
738	Ana Bizkarguenaga	00:29:24	2387	Edurne Pozuelo	00:34:50	3582	Ane Lahidalga	00:37:24	4586	Ane Marfull	00:40:30
806	Irene Ramirez	00:29:49	2545	Oihane Garboa	00:35:10	3635	Marialui Zendoia	00:37:32	4587	Maitte Estenaga	00:40:30
925	Helene Oiarzabal	00:30:27	2549	Cristina Bermudez	00:35:11	3716	Agurme Olaso	00:37:43	4589	Laurin Perez	00:40:31
926	Ainhoa Laruskain	00:30:27	2667	Amaia Fernandez	00:35:26	3718	Nora Ros	00:37:43	4598	M <sup>a</sup> Mercedes Agirre	00:40:32
1087	Esther Eizagaetxeberria	00:31:12	2885	Olatz Iturricastillo	00:35:56	3724	Ana Zubiaurre	00:37:44	4600	Carmen Alonso	00:40:32
1088	Libe Gorosabel	00:31:12	2886	Ehari Ulazia	00:35:57	3740	Ane Ros	00:37:45	4603	Cristina Alberdi	00:40:32
1090	Bibi Gomez	00:31:12	2905	Chelo Vila	00:36:00	3878	Nekane Aizpirtarte	00:38:11	4680	Maitte Hernandez	00:40:54
1092	Nerea Maguregi	00:31:12	2907	Teresa Vila	00:36:00	3899	Leire Iturbe	00:38:13	4695	Naiara Arriaga	00:41:02
1093	Piedad Arrillaga	00:31:12	2985	Merche Aja	00:36:11	4054	Naiara Cortina	00:38:40	4696	Ane Cid	00:41:03
1245	Anttoni Viña	00:31:40	3032	Nerea Telleria	00:36:17	4057	Maialen Lado	00:38:41	4697	Oihane Gardoki	00:41:03
1314	Maidar Bartolome	00:31:57	3197	Marijose Iglesias	00:36:40	4066	Oihana Lado	00:38:41	4740	Marta Larrea	00:41:40
1404	Irati De los Toyos	00:32:16	3329	Ainhoa Azpiazu	00:36:58	4354	Ane Azpiri	00:39:46			



la 5.000 emakumek hartu zuten parte Lilatoia 28. edizioan.



## Katu Kale indar berrituta

Aurreko asteburuan erraz nagusitu zitzaion Eibarko saskibaloia Errenteriako Loy-al Gamoni eta, 71-32 emaitza horrekin berrindartuta, bihar 18:15ean azken postuetan dagoen Alde Zaharra C hartuko dute Iñaki Sanchezen mutilek Ipurua kiroldegian. Goiko postuetan borroka itxia dago lau talderen artean, denak igoyeraren bila: AIB taldeak Ostadar, Cafes Aitona Askatuak B eta eibartarrei garai-pen bakarrek alde kentzen die une honetan.

## 9 domina ekarri zituzten Kalamuakoek Madrildik

Aurreko asteburuan Madrilgo Navalcarneron jokatu-tako Jiu Jitsu modalitateko senior mailako Espainiako txapelketaren finaleran, Eibarko ordezkariak lan bikaina egin zuten eta urrezko domina bi, zilarrezko bat eta brontzezko sei-ekin itzuli ziren. Euskal selekzioa 11 kirolarirekin aurkeztu zen, eurretako zortzi Kalamuakoak. Zapatuan Ne Waza (borroka lurrean) modalitateko txapelketak jokatu ziren eta hor Javier Las-

sa eta Josu Huarte podiumeko gorenera igo ziren, Nekane Muguruzak finala galdu eta zilarrezkoa bereganatu zuen, eta Arrate Jorgek, Mikel Marinek eta Julen Ramonek brontzezkoa eskuratu zuten. Domekan jokatu-tako Borroka modalitatean, bestalde, Muguruzak, Jorgek eta Ramonek brontzezkoa lortu zuten. Julio Gallego eta Manu Agirre teknikariak pozik bueltatu dira lortutako emaitzekin, "batez ere kontuan izan-



Zapatuko jardunaldian irabazitako dominak.


da ordezkari erdiak baino gehiago juniorrak direla". Kalamuako prestatzaileak arduratuta ere badaude: "Muga hain goian jarrita, horrelako emaitzetara heltzen ez garenean ezer ez dugula egin pentsatzeko arriskua ez ote dugu izango?". Hilaren 15ean junior mailako Munduko Txapelketa jokatu da Atenasen eta han izango dira Nekane Muguruza eta Iker Martinez, Manu Agirrerren aginduetara.



## Kanoilari eta arkabuzarien arteko norgehiagoka izango da Astelenan

Horrela izendatu dute domeka arratsaldean Eibarren jokatuko duten profesionalen lehen mailako binakako txapelketako finalerdiaren ligaxkakako partidua. Fase horretarako lau bikote sailkatuta, asteburu honek ligaxka horretako lehen jardunaldia hartuko du eta sailkatutako Aspeko bikote biak nor baino nor arituko dira Katedralean: alde batetik, txapelketako lehen fasean nagusitasun sendoa erakutsi duen Irribarriak eta Rezustak osatutako bikotea eta, bestetik, irregulartasunez betetako ibilbidea egin duten Elezkanok eta Zabaletak osatutakoa.

Prezioei dagokionez, fase berri honetako kantxako sarreak 45 eurotan salduko dira, aurreko fasean baino 10 euro



*Irribarriak eta Rezustak pegada handia erakutsi dute lehen fasean eta, 14 partidutik, bi kenduta beste guztietan nagusitu dira.*

garestiago, eta goiko gradatik ikusteko 20 euro ordaindu beharko da.

Partidu nagusia hori izango bada ere, jaialdiak aukera eskainiko du Jokin Altuna aurrelari bikaina lehenengo partiduan

ikusteko. Berak eta Erostarbek osatutako bikoteak Jaka eta Merino II.ak osatutakoari egingo dio aurre. Jaialdia amaitzeko, bestalde, Gorka-Cecilio eta Elordi-Jaunarena bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

### Gaur partidu bi

Katedralak aurretik ere zabalduko ditu ateak. Gaur zehazki jaialdia izango da, 19:15ean hasita, Klub Deportiboko pilotariak protagonista. Bi neurketa izango dira gaurko egitarauan: infantilena hasiteko eta helduena jarraian. Gipuzkoako Errendimendu Txapelketan, Camina-Sanchez bikoteak Añorgako ordezkariari egingo die aurre eta, Udaberri Txapelketan, Agirresarobek eta Gaztañagak osatutakoak Zumarragako Belokikoak hartuko ditu. Aurreko asteburuan, bestalde, Caminak eta Sanchezek 18-6 irabazi zieten Euskal Giroakoei, Unamunzaga-Agirresarobe bikoteak Gazte Lekukoekin galtzen zuen bitartean.

## Odei Jainaga Espainiako txapelatik 9 zentimetrora geratu zen

Aurreko asteburuan Badajozeko Montijo herrian jokatuako neguko jaurtiketa luzeko Espainiako txapelketan Klub Deportiboko atleta bigarren geratu zen, Manu Quijera nafarraren atzetik. Beti ezin da, eta oraingoan Odei Jainagak ez zuen markarik egin; hala ere, 71,94 metroko jaurtiketa bikainarekin sailkatu zen bigarren.



Markel Gutierrez

El Hierroko Valverde herrian, bestalde, Espainiako martxa txapelketa izan zen jokoan eta hor Markel Gutierrez eibartarrak 11. postua lortu zuen juniorretan. Kevin Cerro kataluniarrak irabazitako proban, Klub Deportiboko atletak 51 minutu eta 58 segundotan bete zituen probako 10 kilometroak.



## Avia Rugby Taldea azken postuetatik urruntzen doa

Azken jardunaldietan lortutako emaitzekin Avia Eibar Rugbyko lehen taldeak aurrera egin du sailkapenean eta, dagoeneko, hiru talde ditu atzetik. Campus Ourense hartuko du Unben domeka eguerdian (12:00etan) eta, ondoren, emakumezkoen taldeak Hernaniren aurka jokatu du (13:30ean). Eta 18 eta 16 urtetik beherako taldeak kanpora joango dira oraingoan, bihar Donostiako Bera Beraren aurka jokatzeko. Bihar ere izango da zer ikusi Unben: Multikirolak saioa izango da 10:00etatik 13:00ak arte eta, 13:30etik aurrera, 14 urtetik beherakoek Gaztedi hartuko dute.

**Etxe-Lan**

**ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK**

FAGOR ARISTON Whirlpool

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA  
**943 79 89 97**

RED sare teknika

**B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31**

*Kafea, opilak, ogia, pintxoak, ardoak...*

**Gozatu EIBARKO PREZIORIK ONENEKIN!**

**KAFETEGIA OKINDEGIA**

**SUTLONDO**

**LABADEROKUA Egunero 06.00etatik aurrera**

## Foballari beteranoen torneoa jokatu da bihar Ipuruako anexoan

Goizeko 09:00etan hasi eta arratsaldeko 14:00ak arte iraungo duen torneo horretan hamar taldek hartuko dute parte eta guztira 15 norgehiagoka jokatu dira. Sarrera doan izango da eta, gainera, Elikagai Bankurako janari bilketa egiteko ere aprobeztatuko dute. Anexoak Espainiako Foballari Beteranoen Elkarteak antolatutako Iparraldeko Liga Solidarioaren hiru jardunaldi hartuko ditu.

SD Eibar Fundazioak Udalaren laguntzarekin antolatutako torneoa aurkeztu zuten aurreko barixakuan Mikel Larrañaga Eibar FTko presidenteordeak eta Miguel de los Toyos alkateak, Roberto Marzana Eibarko beteranoen taldeko presidentearekin batera. Aurreikuspenen arabera, 35 urtetik gorako 150 jokalar beterano inguru etorriko dira gurera, hamar talde ordezkaten: Valladolid, Gimnastica, Mirandes, Logroñes, Osasuna, Sestao, Barakaldo, Athletic



Aurreko astean aurkeztu zuten bihar anexoan jokatu den foballari beteranoen torneoa.

eta Real izango dira, Eibarko beteranoekin batera, hor parte hartzen. Foball profe-

sionalean jardundako izen handiko jokalaririk ikusteko aukera paregabea izango da bihar goiz osokoa.

### 1. jardunaldia

09:30ean: Athletic - Logroñes  
eta Real Sociedad - Barakaldo

10:05ean: Mirandes - Gimnastica  
eta SD Eibar - Osasuna

10:40ean: Valladolid - Sestao

### 2. jardunaldia

10:40ean: Barakaldo - Logroñes

11:15ean: Real Sociedad - Valladolid  
eta SD Eibar - Athletic

11:50ean: Osasuna - Mirandes  
eta Sestao - Gimnastica

### 3. jardunaldia

12:25ean: Valladolid - Gimnastica  
eta Osasuna - Barakaldo

13:00etan: SD Eibar - Real Sociedad  
eta Athletic - Mirandes

13:35ean: Logroñes - Sestao

## 35 lagun bildu zituen aurreko domekako Trail irteerak



Eibarko Klub Deportiboak antolatzen dituen Mendi Jardunaldien barruan, trail irteera izan zen aurreko domekan, batzordeko mendi-lasterketa taldekoek prestatuta. 800 metroko goranzko desnibela zuen 17 kilometroko ibilbidea osatu zuten T. Etxebarria kaletik abiatu ziren 35 lagunek, "Eibar inguruko mendi eta ibilbide berriak korrika eginez ezagutzeko" aukeraz baliatuz. Azitainera jaitsi eta Illordo, San Salvador, Azurtza, Azkonabitz, Arraotz eta Galdaramiño gaindituta, Unbetik bueltatu ziren berriro Eibarrera. Eguna ondo aprobeztatu zutela erakusteko, maiatzaren 14an hurrengo irteera egiteko geratu ziren.

aire garbiaren bila

## Bizkaiko Biraren 6. etapa egingo dute martxoaren 18an

Hilabete honetako bigarren etapak Plentzia eta Algorta lotuko ditu

Bakion hasi eta Gorliz eta Plentziaren artean amaitu zen bosgarren etapako irteeran parte hartu zutenek ez zuten eguraldia lagun izan. Ea mendekua hartu eta hurrengoak, Bizkaiko Birako seigarren etapak, argazki dotoreagoak ateratzeko aukera eskaintzen dien. Etapa guztietatik laburrena izango da Plentziatik Algortara eramango dituen, 14 kilometro eta erdirekin. Ibilbidean, Urdulizetik pasa eta Munarrikolanda mendia (255 m.) igoko dute, tontorrean dagoen bunkerrarengatik eta bere bizkar luzean ikus ditzakegun historiaurreko tumulu ugariarengatik ondo merezitako ospea lortu duena. Goizeko 08:00etan autobus geltokitik irtengo dira eta 19:00etarako Eibarren izango dira berriro bueltan.



Bizkaiko Birak badu kulturatik ere.

Irteeretan parte hartzeko Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzen eta eguenetan (19:30-20:30).

## Organo-emanaldia bihar San Andres elizan



Andra Mari abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko antolatu duten egitarauaren barruan hainbat emanaldi eskainiko dituzte Gipuzkoan, Foru Aldundiak eta Kutxa Fundazioak finantzatutako "Eskualdez Eskualde" izeneko egitasmoan. Horri lotutako egitarauaren ardatza Faureren "Requiem" piezaren organorako bertsioak osatzen du eta bihar Eibarren entzuteko aukera izango da, 20:00etan

San Andres elizan hasiko den kontzertuan. Alize Mendizabalek jardungo du organoarekin eta bokalista solistak, berriz, Lucía Gomez Aizpurua eta Jesus Garcia Arejula izango dira. Egitaraua Cesar Franck-en "Coral nº 1" (organoa bakarrik) eta Gabriel Fauré-ren "Cantique" eta "Requiem" piezek osatuko dute eta, Eibarren ez ezik, Irunen (hilak 18an) eta Tolosan (hilak 25ean) ere emango dute kontzertua.




LIERNI IBARGUTXI

### Lekuz kanpo dagoena

Zenbatetan entzun (eta esan) dugu eibartarrok gure herria zatarr delá? Badakigu topiko bat dela. Donostia polita dela esatea topikoa den moduan. Eta badakigu topikoek nabardurak ezabatu, ertzak moztu eta singularitatearen aberastasuna lausotu egiten dutela. Badute egiatik zerbait, baina erabatekoegiak izaten dira. Zirt edo zart. Muga zorrotzak jartzen dituzte kategorien artean. Baina mugak zabaldu edo estutu egiten ditugu, faktore askoren arabera. Ederraren eta zatarraren arteko muga haize-zulotsuak eta aldakorraz pentsatzean, ordea, irakasle batek esandakoa gogora etortzen zait sarritan: zatarrá da lekuz kanpo dagoena. Definizio irekia da, kasuan kasuko faktoreak kontuan hartzeko balio digu. Estetikaren eta etikaren arteko loturaz pentsatzea ere eramatzen gaitu. Lotura hori oso presente dago hirigintzan. Bien arteko oreka ez da erraza. Askotan, paperaren gainean aldrebesena dirudien espazioan sortzen dira herritarren arteko hartu-emanik ugariak. Alabaina, gertatzen da, hirigintzaren txukuntasunaren izenean, aldrebesa zen espazioa edertu nahi izaten dugula eta bizitza espazio horretatik desagertu egiten dela: edertzea txukunkeria dela, txukuntasuna baino. Horregatik, ez nator topikoarekin bat. Eibar eta Eibarko hirigintza bihurri eta industrialaren tankera hartzen diegan beste herri eta auzo asko ere gustuko ditut. Hain zuzen ere, espazioaren erabilera eguneroko bizitzak aurrera egiteko bidea, espazio mordoilotuetan bada ere, aurkitu duelako. Eta hori inoiz ez dago lekuz kanpo.

## Bularretik Mintzora gurasoendako hitzaldiak, gazteleraz

Bularretik Mintzora egitasmoaren inguruan otsailean euskeraz eskainitako hitzaldiak gazteleraz emango dituzte martxoan (20an eta 27an). Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte literatura Elkartearen eskutik irakurzaletasuna sustatzeko asmoz sortu zen egitasmoa Euskal Autonomia Erkidegoan herriz herri ari da zabaltzen, liburutegien ekimenaren bitartez, eta gurean aurreko hilean egindakoetan 20 bat gurasok parte hartu eta gero, martxoan bi hitzaldiz osatutako tailerra eskainiko diete, gaian adituak diren profesionalen eskutik, irakurketa ohiturak etxean sustatu nahi duten familiek formazioa jasotzeko aukera izan dezaten. Lehen saioan hizlariak Juan Kruz Igerabide eta Itziar Zubizarreta izango dira eta Haur Literaturari buruzko saioa izango da. Besteak beste, literatura unibertsalaren eta gurearen ikuspegi bat landuko dute eta, horrekin batera, euskal haur literaturako poesia, kanta, joko eta abarren tradiziozko ereduak ere erakutsiko dizkiete gurasoei. Eta bigarren saioan Juan Carlos Alonsok Haur Literaturak haurren garapen emozional, intelektual eta afektiboan duen garrantzia jabetzeko hitzaldia emango du. Biak Portalean (areto nagusian) izango dira, 18:00etatik 20:00etara eta izena emateko azken eguna martxoaren 15a izango da (ikastetxean, umearen irakasleari esanda; liburutegiko moztadorean zuzenean; 943708437 telefono zenbakira deituta; edo liburutegia@eibar.eus helbidera idatzita).



## Martxoaren 8ko kartelak Portalean ikusgai

Eguazten eguerdian inauguratu zuten Portaleko erakusketa aretoan Martxoaren 8ko kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, baina, aurretik, irabazleari saria banatu zioten: Natalie Garrido Acebes eibartararen "Eyes" izenekoak eraman du lehenengoz antolatu den lehiaketako saria. Bere lana, lehiaketara aurkeztutako besteekin batera, Portalean egongo da ikusgai gaurtik hasita hilaren 26ra arte, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era bitartean zabalduko duten erakusketan.





**KEPA ERRASTI**  
(aktorea)

– *Zer da Mami Lebrun?*

Antzezlari honetan hil berri den amona bati bere biloba Egoitzek eta honen bikotekide den Mirenek prestatzen dioten omenaldia kontatzen da. Omenaldi horretan amona hil eta gero ganbaran aurkitu dituzten eguneroko eta gutun batzuen bidez jakin dituzten istorioak kontatuko dituzte. Bazekiten amona neska-me ibili zela Parisen baina besterik ez, eta sekretu asko gordetzen zituela aurkitzen dute. Mami Lebrun, obraren izena, amonak Parisen izan zuen ezizen bat da. Nire pertsonaia Egoitz da baina antzezlana bi planotan interpretatzen da eta Egoitz orainaldian naiz, amonaren galerak oso ukituta utzi duen pertsona eta gabezia eta tristura hori aipatutako omenaldiarekin garaitzea nahi duena.

## “Obrak bat egiten du denok izan ditugun sentimenduekin”

Antzerki Jardunaldien egitarauaren barruan, martxoaren 14an “Mami Lebrun” taularatuko dute Xake Produzioak-ek. Kepa Errastik idatzitako obra hau Getari Etxegarai zuzentzen du eta aktoreak Kepa Errasti bera, Ane Pikaza eta Ainara Ortega dira. Tragedia eta umorea nahasten dituen antzezlari honek amona baten istorioa kontatzen du iraganean, eta aldi berean, amonaren heriotzaren ostean, bere bilobak eta honen bikotekideak prestatzen dioten omenaldia. Antzezlana euskaraz izango da, 20:30ean, Coliseoan.

Iragana interpretatzerako orduan bestalde, pertsonaia ameslari eta borrokalari bat naiz. Mirenez eta Egoitzek gain, Ainara Ortega ere badu pertsonaia bat eta bera arduratzen da ikuskizuneko abestiak kantatzeaz.

– *Zuk idatzitako obra da...*

Bai, Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntza bat jaso nuen eta aurrera egin nuen. Hala ere gidoia moldatu eta berridatzi egin dugu entseguetan. Gidoia hasiera batean nahiko tristea zen orokorrean eta entseguetan aldatu egin genuen zuzendariaren eta ekipoaren esku finari esker. Getari Etxegarai zuzendariak esaten zuen aire apur bat falta zitzaiola, umore pixkat behar zuela hain tristea izan ez zedin. Oreka behar zuen. Heriotzatik umore berrera buelta ematea nahiko kontu kurio-

soa izan da, baina dramarekin eta umorearekin jolastu nahi izan dugu.

– *Nola txertatzen da umorea heriotza oinarri duen antzezlanean?*

Obrak ezaugarri berezi bat dauka hori lortzeko. Obraren oinarritzko pieza da umorea nola txertatzen dugun, baina ez nuke argitu nahi, ikusleei sorpresa emateko. Badaukagu orokorrean erratasun bat tragediez barre egiteko, umorez kontatzen badira. Harrera ona izaten du antzezlariak, 2016ko maiatzean estreinatu genuen eta oso pozik gaude horrekin. Gainera, jendea oso erraz identifikatzen da horrelako galera batekin. Denok galdu dugu aitona edo amona bat. Batez ere amona horren figura denok daukagu barruan eta gure sentimendu horrekin oso errez egiten du obrak.


## Antzerki Jardunaldiek eibarreraz egingo dute hurrengo egunotan

Urtero-urtero ahalegintzen dira Antzerki Jardunaldietako antolatzaileek Narruzko Zezenetik eta Eibartik bederen irtendako eta antzerki munduan dihardutenen presentzia ziurtatzen jardunaldiotan. Oraingoan, apirilaren 2an Hezkuntza Esparruko Narruzko Zezen taldekoek antzeztuko duten “La educación de los cerdos”-ekin batera, eibartarrek protagonismo berezia izango dute etziko eta datorren eguazteneko programazioan. Domekan Rafa Herceren “Guernica 1913” antzeztuko du Banarte



Rafa Herceren  
“Guernica 1913”  
lana zuzentzen du  
Sardo Irisarrik.

Antzerki Elkarteak, Sardo Irisarriren zuzendaritzapean. Eta hilaren 15ean eibartarrek bakarrik izango dira “Frida” antzeztu: Rosa Martinez-Alcocer interprete lanetan eta Fran Lasuen musikaria biolinarekin.



Rosa Martinez-Alcocer aktoreak eta Fran Lasuen musikariak, euren bakarrik interpretatuko dute “Frida” lana datorren asteko eguaztenean.



## Musika Bandaren kontzertua etzi

Eibarko Cielito Musika Bandak kontzertua emango du domekan Coliseo antzokian, 12:30ean (aurretik, 11:15ean kalejira egingo dute, eguraldiak lagutzen badu). Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emaldian honako egitarauari jarraituko diote: "Honrando a Navarra" (pasodoblea, Julio Nuñez), "Aires Vascos no.1" (bilduma, Jose Franco), "La Viejecita" (zarzuela, M.F. Caballero), "Battlestar Galactica" (BSO, G. Larsons/Philips) eta "La Italiana en Argel" (obertura, Rossini).



## Izarraitzera irteera Korrikarekin

Korrika Kulturalaren barruan, gure inguruko historia ezagutu nahi dutenentzat Izarraitzera mendi irteera antolatu dute. Martxoaren 25ean egingo da irteera (09:00etan Untzagan eta 10:00etan Aitxolazar aparkalekuan), Elgoibarko Inma Mugerza geologoak gidatutako ibilbideari jarraituta. Joan nahi duenak aurretik izena eman beharko du, Arrate Kultur Elkartearen (arratekultu@gmail.com / 638284912) edo AEK euskaltegian (eibar@aek.eus / 943201379). Izena emateko azken eguna martxoaren 20a izango da (kopuru mugatua).

## "Eibar aldeko euskara hiztegirako" botoak emateko epea zabalik

Udalak Eibarko AEK eta Udal Euskaltegiarekin lankidetzan antolatutako "Eibar aldeko euskara hiztegia" argazki digital lehiaketara 59 argazki aurkeztu dituzte eta orain jendeak botoa emateko unea iritsi da. Argazkiak

www.eibarko-euskara.eus orrian ikusgai daude eta, botoa emateko, zuentzat hiztegi-ko berba egokien irudikatzen duen argazkia aukeratu behar duzue eta "botoa" jartzen duen tokian klik egin. Botoa emateko azken eguna martxoaren 19a izango da. Bi sari emango dira: epaimahaiak emandakoa eta jendearen boto gehien jaso dituenak.



## Irudi bizidun ikusgarriak

Aurreko barixakuan Antzerki Jardunaldien egitarauaren barruan egin zen XV. Giza Irudien erakustaldian parte hartu zuten bost aktoreek jende guztia harritzea lortu zuten berriz ere. Bartzelonako M.P.C-ren eskutik robota, antzinako dama, ura eta guzti botatzen zuen iturria, punky motorzalea eta Cervantes bera izan genituen Untzagan, zein baino zein ikusgarriago.

## Sostoaren kontzertua Alegin

Sostoa abesbatzak Alegin, hango elizan kontzertua emango du domekan, 19:00etan. Horrela, iazko San Juanetako kontzertuan Alegiko Txintxarri abesbatzak egindako bisitari erantzuko diote eibartarrek. Emanaldian, besteak beste, iazko abenduan Coliseoan eskainitako kontzertuan horren harrera ona izan zuen Vivaldiren "Gloria" abestuko dute.

### KONTZERTUA

martxoak 12  
 ALEGIAKO ELIZA - 19:00

### SOSTOA ABESBATZA Eibar

Antonio Vivaldiren  
 GLORIA




## Bergarako organoaren alde

Domekan 19:00etatik aurrera Bergarako Stoltz-Frères organoaren aldeko kontzertua hartuko du herri horretako Santa Marina elizak, Jose Miguel Laskurain (txistua) eta Aitor Olea Juaristi (organoa) musikarien eskutik.

Emanaldian joko dituzten piezak hauek dira: "Donosti" (1974), "Gorteu eta Dantza" (1974), "Euskal Suitea I", "Hiru Abesti" (1970), "Mendiko Itzala", "Tocatta" eta "Euskal Suitea II".

## Eguen Zuri lehiaketarako lanak

Arrate Kultur Elkarteak antolatutako XX. Eguen Zuri Argazki Lehiaketarako lanak martxoaren 29ra arte jasoko dituzte, lehen solairuko bulegoetan edota Kultu tabernan. Lehiaketa irekia da zaletu guztientzat eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu, koloretan zein zuri beltzean.



martxoaren 10etik 17ra arte

## “Universario” (Marcel Gros)

11n (zapatua), 17:00 / 60 minutu

Coliseoan / 5 euro / HAURRENTZAT



ANTZEZLE ETA ZUZENDARIA: Marcel Gros

Egungo pailazo handienetakoak hitzean eta keinuan oinarritzen du bere lana. 30 urteetako ibilbidea egin ondoren, eszenatokiak ez du sekreturik berarentzat. Joko eszenikoaren, gauzen manipulazioaren eta berba azkarraren maisuak ikuslea berehala bereganatzen du.

## “Guernica 1913” (Bonarte Antzerki Elkarte)

12an (domeka), 20:30 / 70 minutu

Hezkuntza Esparruan / 5 euro / DRAMA

ANTZEZLEAK: Dolma Romera, Jon Urbano, Begoña Garcia...  
ZUZENDARITZA: Sardo Irisarri

Sardo Irisarrik zuzentzen duen Rafa Herceek sortutako drama hau 2013ko urrian estreinatu zen Gernikan, gertaerak gertatu ziren herrian, eta hor aztertzen dira bai han eta baita Eibarren ere gertaerak izan zituen ondorioak. Klase borroka da protagonista, Euskal herriko bihotzean izandako bataila baten istorioa.



## “Mami Lebrun” (Xake Produksioak)

14an (martitena), 20:30 / 60 minutu

Coliseoan / 12 euro / TRAGIKOMEDIA

ANTZEZLEAK: Ane Pikaza, Kepa Errasti, Ainara Ortega  
ZUZENDARITZA: Getari Etxegarai

Ikuskizuneko protagonistetako baten amonaren bizitza ezkutua ezagutuko dugu, Parisen kabaret-kantaria izan baitzen. 40. hamarkadako giroa birsortuko dute, zuzenean kantatuz, eta hizkuntza izango da pertsonaiak aldatzeko tresna, sei euskalkitik zehar ibilbide ezin oparoagoa eginez.

## “Frida” (Iris Teatro)

15ean (eguztena), 20:30 / 80 minutu

Coliseoan / 12 euro / DRAMA

ANTZEZLEAK: Rosa Martinez Alcocer / BIOLINA: Fran Lasuen  
ZUZENDARITZA: Paco Obregon

Hildakoen egunerako jai bat prestatzen diharduen bitartean, *Frida Kahlo*-k bere biografiako hainbat pasartetik zehar eramango gaitu, bere haurtzarotik heldutasunera, tartean aukera izanik emazte, maitale edo margolari bezala ezagutzeko. Oinazea, grina eta umorearen artean garatzen da bakarriketa.



## “La Crazy Class” (L’Om Imprebis)

16an (eguztena), 20:30 / 100 minutu

Coliseoan / 15 euro / KOMEDIA

ANTZEZLEAK: Carles Castillo, Carles Montoliu, Elena Lombao...  
ZUZENDARITZA: Santiago Sanchez, Michel Lopez

Antzerki-ikastaro bateko 12 ikasle despistatu samarrak igoko dira eszenatokira: batzuk beldurtiak oholtzan aritzeko, besteak frikiak, guztiak gure gizartearen aurkitzen errazak. Beste batzuekin batera, koktel barregarri eta zorabiagarri sortuko dute bi osagai nagusirekin: umorea eta antzerkiarekiko maitasuna.



**80. hamarkadako musika SORALUZEN**

Gaur gaueko 23:00etatik aurrera 80. hamarkadako euskal rock eta punk musika jaialdia hartuko du Soraluzeko Arrano tabernak: Hertzainak, Zarama, Kortatu, MCD, Barricada, Delirium Tremens, Cicatriz, Potato eta beste askoren kantuak ipiniko dituzte, "eta akaso aukera izango dugu Karinaren abestiren bat entzuteko ere. Eskertuko da garai hartako jantzi etortzea".



**Sagardo Eguna ERMUAN**

Ermuko Gazte Asanbladak antolatuta Sagardo Eguna ospatuko dute bihar, 12:00etatik aurrera. Hainbat ekitaldirekin girotuko dute Orbe kardenalaren plazan eguerdian hasiko den jaia.



**Falta taldearen kontzertua ELGETAN**

Bihar 19:30ean kontzertua emango du Falta taldeak Elgetako Spaloia 13 Kafe Antzokian. Manu Etxegarai (bateria), Beñadin Lohiague (gitarra) eta Seb Delaporte (bajua) kide dituen hirukoteak Euskal Herriko post-rocka eskaintzen du. Emanaldirako sarrera doan izango da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Viernes	Sábado	Domingo	Lunes	Martes

**hildakoak**

- Jose Luis Diaz Garcia. 76 urte. 2017-III-1.
- Felix Baskaran Elordi. 88 urte. 2017-III-1.
- Montserrat Sanchez Molinero. 52 urte. 2017-III-2.
- Cheli Aja Lopez. 74 urte. 2017-III-4.
- Pedro Urzuriaga Ugarteburu. 85 urte. 2017-III-5.
- M<sup>a</sup> Luisa Ruiz de Egin Ruiz de Egin. 84 urte. 2017-III-6.
- Jesusa Manso Palacios. 92 urte. 2017-III-6.
- Evaristo Lete Muguruza. 84 urte. 2017-III-8.
- Celedonio Magro Garcia. 86 urte. 2017-III-8.

**jaiotakoak**

- Mohammed Anas. 2017-III-3.
- Maialen Bonaetxea Gomez. 2017-III-4.
- Joan Mora Aberrane. 2017-III-4.

**farmaziak**

- Barixakua 10  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 11  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Domeka 12  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astlehena 13  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 14  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 15  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 16  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 17  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2017AN-  
Mandiola (S. Agustin, 3)

**SUDOKUA**

			1	6		9		
9								
1	5	2			8			
	7			3		8	1	
	3		4		1		9	
	2	1		8			6	
			8			7	4	9
								5
		3		1	9			

3	2	1	8	9	7	6	5	4
8	5	9	6	4	2	3	1	7
7	4	6	3	5	1	8	9	2
5	6	3	4	7	8	1	2	9
2	9	7	1	6	5	4	3	8
4	1	8	2	3	9	7	6	5
1	7	5	9	8	3	2	4	6
6	8	2	5	1	4	9	7	3
9	3	4	7	2	6	5	8	1

AURREKOAREN  
EMAITZA

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

**Zapatua 11****FOBALL TORNEOA**

**09:00/14:00.** Beteranoena, hamar taldetako 150 jokalarirekin. Sarrera doan. Ipuruako anexoan.

**ASTELENA HAUR PARKEA**

**10:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelena frontoian.

**TAILERRA**

**17:00.** "Zer nolako biharra, emakumeena". Izen-ematea: Museoan, 16:00/16:30. Armagintzaren Museoan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**17:00.** "Universario" (Marcel Gros). Coliseoan.

**UMEENDAKO ZINEA**

**17:30.** "Trolls". Doan. El Corte Inglesean.

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30.** Ipurua kiroldegian.

**IPIUIN KONTAKIZUNA**

**18:00.** Ingelese, Kids&Us-en eskutik: "Gina Ginger and Charlie Chives". Doan. Armeria Eskolan.

**KALEETAN KANTUZ**

**19:30.** Abesbatzaren irteera. Untzagatik abiatuta.

**KONTZERTUA**

**20:00.** Andra Mari abesbatzak 50 urte: "Réquiem de Fauré" organo kontzertua. S. Andres elizan.

**KONTZERTUA**

**22:00.** Jaleo, Zartako-k eta Yakovlev. 3 euro. Eibarko gatzetxean.

**Domeka 12****BERDINTASUNAREN**

**ALDEKO MARTXA**  
**11:45.** Talde argazkia.  
**12:00.** "Denok martxa genero-berdintasunaren alde" martxa abiatzea. Untzagatik.

**KONTZERTUA**

**12:30.** Eibarko Cielito Musika Bandarena. Coliseoan.

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30.** Ipurua kiroldegian.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20:30.** "Guernica 1913" (Banarte Antzerki Taldea). Hezkuntza Esparruan.

**Martitzena 14****IKASTEN**

**10:00.** "Boterearen irudiak moderno aroan (I)" hitzaldia, Urko Barrosen eskutik (Historian lizentziatua). Armeria Eskolan.

**IKASTEN**

**16:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

**MENDI JARDUNALDIAK**

**19:00.** "Lehen Sorospenak mendian" tailerra, Javi Bayoren eskutik. Klub Deportiboan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20:30.** "Mami Lebrun" (Xake Produktzioak). Coliseoan.

**Eguaztena 15****KAFE-TERTULIA**

**11:00.** "Alergiak. Eragina osasunean". Untzagako jubilatuetxean.

**GURASOAK MARTXAN**

**18:00.** "Comunicación y resolución de conflictos en la vida real y digital" hitzaldia, Baikorako Garbiñe Arrizabalagaren eskutik. Portalean.

**LITERATURA HITZALDIA**

**18:30.** "La chica del tren. Saliendo del túnel: alcoholismo, pobreza y exclusión femenina", Josune Muñozen eskutik. Portalean.

**EIBARKO KANTUZALEAK**

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20:30.** "Frida" (Iris Teatro). Coliseoan.

**Eguena 16****IKASTEN**

**10:00.** "Justizia eta informaziorako eskubidea" hitzaldia, Garbiñe Biurrunen eskutik. Armeria Eskolan.

**IKASTEN**

**17:45.** Dantzaldia. Untzagako jubilatuetxean.

**ODOL-EMATEA**

**18:30.** Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

**URTEKO BATZARRA**

**19:00.** ...eta kitto! Euskara Elkartearena (2. deialdia, 19:30ean). ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarlean).

**KALERATZEAK STOP**

**19:00.** Kaleratzeak Stop plataformako bilera irekia. Portalean.

**KALEETAN KANTUZ**

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20:30.** "La Crazy Class" (L'Om Imprebis). Coliseoan.

**zineaColiseoan****(ANTZOKIAN)**

**11n: 17:00**(2 Aretoa)  
**12an: 17:00**(EUSKERAZ)

**"Batman. La Lego"**

Zuzendaria: Chris Mckay

**(ANTZOKIAN)**

**11n: 17:00**(1 Ar.), **19:45, 22:30**  
**12an: 17:00**(1 Aretoa), **20:00**  
**13an: 20:30**

**"El guardián invisible"**

Zuzendaria: Fernando Molina

**(2 ARETOAN)**

**11n: 19:45, 22:30**  
**12an: 20:00**  
**13an: 20:30**

**"Moonlight"**

Zuzendaria: Paco Arango

**(1 ARETOAN)**

**11n: 19:45, 22:30**  
**12an: 20:00**  
**13an: 20:30**


**"Logan"**

Zuzendaria: James Mangold





**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, MARTXEL, aurreko domekan lau urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi bat famelixakuon eta, batez be, Liberen partez.



Zorionak, SARA, astelehenian bost urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LOREA, gure printzesak gaur 10 urte egitten dittu-eta. Txokolatezko musu pillua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKEL, txapeldun!!!, haraiñegun 4 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IBANE, polittori, gaur bi urte egitten dozuz-eta. Musu haundi bat, bihotzez, osaba Ibon eta izeko Yoliren partez.



Zorionak, ANE, gure printzesak gaur bi urte betetzen dittu-eta. Patxo bat Axular, aitta, ama eta etxeko guztion partez.



Zorionak, JULEN, astelehenian bost urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, SARE, hillaren 16xan 7 urte egingo dozuz-eta. Egun zoragarrixa pasa, famelixaren partetik.



Zorionak, MALEN, haraiñegun urtetxua bete zenduan-eta. Musu haundi bat tia Inmaren partez.



Zorionak, LUR, etxeko printzesa, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ELIANA, atzo urtiak egin zenduazena-eta. Zure gurasuak, ahiztak eta bikotiaren partez.



Zorionak, izeko ANA, zure urtebetetzian. Askoi maite zaittugu! Ane eta Pabloren partez.



Zorionak, AMAMA. Besarkada haundi bat famelixaren partez 100 urte bete dozuzen honetan.



Zorionak, GARAZI Egurrola Mugerza, bixar bost urte beteko dozuzelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IARETXU! Honezkeru bi urte gure etxia alaitzen!! Musu potolo bat!!!



Zorionak, LAIA Castro, bi urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, EIDER! Oso ondo pasa zure egunian. Patxito pillu bat danon partez.



Ongi etorri, MADDI. Maite zaittugu. Pozez gaiñezka gaude zurekin!!!

## Erakusketak

### Martxoaren 12ra arte:

– “EMAKUMEAK ETA ARTEA” erakusketa. *(Topalekuan)*

### Martxoaren 26ra arte:

- “RENDER” EDURNE MTNEZ. ARROYOREN erakusketa. *(Portalean)*
- “ARGIAREN IGAROBIDEA” ZALOA IPIÑAREN erakusketa. *(Portalean)*
- MARTXOAREN 8AREN INGURUKO KARTELEN erakusketa. *(Portalean)*

### Martxoaren 31ra arte:

- AGUSTIN BUSSELOREN argazki erakusketa. *(El Ambigu tabernan)*
- M. SOL YABENEN argazki erakusketa. *(Portalea jatetxean)*

### Apirilaren 22ra arte:

- “MIRADORES” LUCENA MORALEN argazkiak. *(El Corte Inglesean)*



Zorionak, UXUE, gure txoritxuak

haraiñegun zazpi urte egin zittuan-eta. Etxekuon eta, batez be, AMAIUR eta AIMAR-en partez.

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Urkizun pisua salgai. Tel. 617-329239.  
– Pisua salgai Txaitxa-Zelai kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 6. solairua, igogailuarekin. Terraza eta garbata. Tel. 665-733954 eta 629-449646.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-032117.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdialdean. Tel. 637-004773.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-778839.  
– 2/3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Garaje itxia saldu edo alokatuko nuke Untzaga inguruan. Plaza batekoa eta trasteroarekin. Tel. 656-733131.  
– Lokala salgai Urkizu dorreetan. 85 m<sup>2</sup>. Prezio interesgarria. Deitu 17:00etatik 20:00etara. Tel. 606-773886.

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Birjiñape 1-ean. 33 m<sup>2</sup>. Bulegoa egiteko aproposa. Tel. 688-678934.  
– Garajea alokagai Ego-Gain kalean. Tel. 660-312431.  
– Garajea alokagai Ego-Gainen. Tel. 685-710962.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 612-268115.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-341064.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-221729 eta 634-256471.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean gauzez ere. Tel. 659-908513.  
– Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-018667.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-691242.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-091262.  
– Geriatria ikastaroa egindako emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-304763.  
– Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 630-112222.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-910326.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-526711.  
– Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-139396.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-083580.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldean laguntzeko. Tel. 652-032117.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 677-175581.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-444649.  
– Erizain-laguntzaile tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-226039.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-436462.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-402030.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065633.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 680-808125.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Interna. Tel. 631-613245.  
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-562461.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-907807.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita baserrietan ere. Tel. 632-776905.  
– Neska eskaintzen da goizez dendari jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 697-891070.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 633-101852 eta 631-282203.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Esperientzia. Orduka. Tel. 602-490595.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 678-814941.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Orduka. Tel. 677-700968.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-266877. Eva.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-057185 eta 648-039187.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 603-386326.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia. Tel. 657-831093.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 604-302842.  
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 630-837736.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-329852.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-498697.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-737903.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 653-156403.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 689-571882.  
– Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197217.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-151806. Maria Elena.

## 4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da Eibarren asteburu-eratarako. Bidali curriculum-a. 279 posta-kutxatila.  
– Enkargatua behar da Elgoibarko taberna batean. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: elgoibartaberna@outlook.es  
– Nagusiak zaintzeko pertsona arduratsua behar da Eibarren goiz eta arratsalde. Ezinbestekoa profesionaltasun ziurtagiria edo geriatria laguntzaile titulazioa. Tel. 600-831698.  
– Neska/mutil euskalduna behar da umeak arratsalde bi orduz zaintzeko. Tel. 628-240923.  
– Sukalde-laguntzailea behar da Eibarren asteburu-eratarako. Bidali curriculum-a. 279 posta-kutxatila.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Batxilergo, DBH eta Heziketa Zikloetako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 685-739709.  
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailetako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Kuma zuria salgai, osagai guztiekin. Berria eta egoera onean. 90 euro. Tel. 687-675484.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## Logopedak

**Berba**  
Logopedia  
AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:  
- Hizkuntza  
- Mintzaira  
- Ahotsa  
- Dislexiak  
- Entzumena  
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. LOUZA)  
Mobila: 622-629-544  
logopeda@berba.es

## Okulistikak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartea  
943 20 19 82

Oftalmologoak  
Centro de Oftalmología Avanzada

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikua

• Katarata ebakuntzak  
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 23/4/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOIA  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48  
**EIBAR**  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOIA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOIA**

Maider Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
www.centroamets.com

**Coro Ortíz de Urbina**  
PSIKOLOGOIA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikuan
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOIA

- Lengoiaia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

**Arantza Alvarez**  
Psikologoa-Sexologoa  
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com  
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Difoniatik
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA  
HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOIA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. .... EIBAR  
Zuberoa, 4 ..... ZARAUZ  
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tel. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22  
moreno\_iciar@yahoo.es

**Itziar Moreno**  
PSIKOLOGOIA  
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA  
ANTSIETATEA  
AUTOESTIMA  
ARAZOAK**

**EIBAR** URKIZU, 13 - 1.  
943 12 02 00

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA  
Orbeako dorreetan

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...  
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Dokorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)